



ARARTEKOAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA, ZAINKETA ARINGARRIEN NAZIOARTEKO EGUNEAN

2019ko urriaren 12a

Oraingo gizarteek, alegia, gizarte-ongizatearen kulturen maila aurreratua duten gizarteek, gero eta maizago egin beharko diete aurre **biztanleak zahartzeari** eta horrek arlo guztietan (batez ere osasun arloan) ekar ditzakeen ondorioei, besteak beste, min kronikorako tratamendua behar duten gaixoak ugaritzeari. Hori guztia medikuntzak eta teknologiak etengabe aurrera egiten duten egoeran egin beharko dute, izan ere, horiei esker, bizitza luzatzen edo mantentzen ari da, orain urte gutxi arte pentsaezina zen moduan.

Bihar ospatuko da Zainketa Aringarrien Nazioarteko Eguna, lelo honekin: **“Zainketa aringarriak: nire zainketa da, nire eskubidea” / “Palliative care: it's my care, my right”**. Hori dela medio, Ararteko erakundeak gogorarazi nahi du **egoera horretan ere errespetatu beharra dagoela norbanakoaren askatasuna eta duintasuna, baita gaixoen eskubideak ere**. Gai hori edozein terapia- eta sorospen-erabakiren erdian kokatu behar da, gaixoaren borondatearen autonomia babestuz. Unescoren Bilkura Orokorrak 2005ean onartu zuen Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala. Adierazpen horren arabera, norbanakoaren autonomia errespetatu beharko da, erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez; eta Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko legeak, berriz, oinarritzko printzipioen artean lehenengotzat jotzen du *“Pertsonaren duintasunarekiko errespetua ziurtatzea bizitzaren amaierako prozesuan”*. Hori lortzeko, berariaz ezartzen ditu bizitzaren amaiera-prozesuko eskubideak eta askatasunak, baita horietaz arduratzen diren langileen betebeharrak ere. Orobat, langile horien jarduera-eremua zehazten du, eta gizarte- eta osasun-erakundeek prozesuan zehar eman behar dituzten bermeak.

Horrela, eskubide berriak azaleratzen ari dira, gaixoen duintasuna babesteko asmoz: hala nola pertsonen bizitzaren amaieran sufrimendua arintzeko duten eskubidea, beraien balio eta sinesmenak errespetatuko dituen kalitateko laguntza aringarriaren bitartez. Askatasun hori jakinaren gainean baliatu ahal izateko, edonork dauka eskubidea bere prozesuari eta gaixotasunari buruzko informazioa jasotzeko, tratamendu bat ez onartzeko, terapia-ahalegina mugatzeko eta dauden hautabideen artean aukeratzeko.

Eskubide horiek ez dira islatzen gaixoaren zainketaren medikuntza-alderdian bakarrik, baizik eta baita ere alderdi izpiritual eta emozionaletan, eta gaixoei nahiz beren senideei ematen zaien laguntzan.



Arartekoak, Europako Kontseiluko estatu kideetako Ministro Batzordearen gomendioa (2003) bere eginez, nabarmendu du **zainketa aringarriek osasun-arretarako sistemaren osagaiak bihurtu behar dutela** eta osasun arloko agintari publikoek bermatu egin behar dutela zainketa aringarriak eskura izango dituztela horien premia duen pertsona orok. Horregatik, Euskadiko edozein herritarrentzat estaldura unibertsala eta berdina berma dadin, **Arartekoak Euskadiko botere publikoei eskatzen die erabakitasunez ezar eta gara ditzatela zenbait estrategia**, bete-betean hedatu ahal izateko **Euskadiko Zainketa Aringarrien 2016-2020ko Planean** xedatutako baliabideak, bereiziki, ospitaleetako zainketa aringarrien unitateak eta lehen mailako osasun-arretarako laguntza-zerbitzuak, baita laguntza maila guztietarako prestakuntza-estrategiak ere.

Osasun arloko lanbideak espezializatzea funtsezkoa da **minaren eta zainketa aringarrien tratamendua garatzeko**, ziur baikaude horrelako zainketak lagungarriak direla gizarte errukitsuagoa egiteko, norbanakoaren duintasunarekiko errespetu handiagoa erakutsiko duena. Pertsona askori heriotza duina izateko bidean lagundu eta errukiz tratatzeko modu zintzo, zuzen eta elkartasunezkoa da hori. Eta horixe da, orobat, osasun fisiko eta mentalarekin zerikusia duten lanbideen funtsezko muina, **Arinduz Euskadiko Zainketa Aringarrien Elkartean** horrelako zainketak ematen dituztenen konpromisoan aurkitzen den bokazioa, osasun arloko profesionalak baitira, hitz horren zentzurik zabalenean.